

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ENERGIA ETA KLIMA PLANEN JARRAIPENA

Posted on 07/05/2025 by Naider

Category: [Albiste](#)

Tags: [Energia eta klima planak](#), [Klima eta Energia Gobernantza](#), [Trantsizio energetikoa](#)

Datozen hiru urteetan, [Bizkaiko Foru Aldundiak](#) Naidarren laguntza teknikoa izango du energiari eta klimari buruzko planen jarraipena egiteko, bai eta trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko euskal araudia aplikatzeko ere.

Zerbitzu honen helburua BFAko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari laguntzea da, trantsizio energetikoari eta klima-aldaketari buruzko euskal legeak foru-administrazioan integratzeko beharrezkoak diren ekintzen definizioan, egokitzapenean, jarraipenean eta ebaluazioan.

Naiderrekin egin beharreko lanen artean daude Energia Jarduketarako Foru Planaren jarraipenean laguntzea, BFaren trantsizio energetikorako eta klima-aldaketarako plan eta estrategien jarraipena egitea, Klima eta Energia Gobernantzako organoen bilerak antolatzen laguntzea, eta otsailaren 8ko 1/2024 Legetik eratorritako betebeharrak betetzen laguntzea, klimaren eta trantsizio energetikoaren ikuspegia txertatzeko.

